

DONOSTIA / Liburutegiak Goethe Institutua eta Udalaren arteko hitzarmena.

Aleman hizkuntza eta kultura sustatzeko helburua du hitzarmenak

I. Lopez

Donostia Kulturako Liburutegien Sarearen eta Madrilgo Goethe Institutuaren arteko hitzarmena sinatu zuten atzo. Goethe Institutua Alemaniako kulturaren erakunde ofiziala da eta Alemaniako hizkuntza eta kultura munduan zabaltzea du helburu.

Sinatutako hitzarmenak hiru urteko epea izango du. Akordioaren arabera, Udal Liburutegien Sareak Goethe Institutuak dohaintzan emandako dokumentuak katalogatzeko eta kontsultatu daitekeen liburutegien bibliografia katalogoan sartzeko konpromisoa hartu du. Halaber, ohiko mailegu eta kontsulta zerbitzuan integratuko lituzke. Goethe institutuak, bere aldetik, Alemaniako kultura eta literatura dokumentuen dohaintza egingo dio Udal Liburutegien Sareari. Honez gain, Donostian alemanaren ikasketak sustatzeko ekimenak aurrera eramango ditu Goethe Institutuak.